Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea
BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN DE BILBAO

# GRAL GAIEN GRABAKETA GAURREN.



GAURen, Gradu Amaierako Lanak atalean, *"Txertatu/Proiektuen/Lanen eskaintza"* atalean sartu.

Azpian dagoen lehioa irekiko da. Bertan aurretik grabatutako lanak agertuko dira. Erreparatu "*Egoera*" zutabeari. Lan bakoitza zein egoeratan dagoen azaltzen da bertan: defentsa eskatuta, defentsa eginda, esleituta soilik...

Grabatuko diren lan berrien egoera *"balidatzeko zain"* izango da, beraz, hemen ziurtatu daiteke grabatu den guztia zuzen dagoela.

Grabaketa egiteko klik egin *"berria"* botoian.



Izenburua grabatzeko egin klik geziak adierazten duen ikurrean.




Izenburua, idazteko hiru espazio daude eta hiruretan testu berbera jarriko da: lanaren izenburua, **eskaintzen den hizkuntzan**. Hizkuntza "Zehaztugabe" eskaintzen bada, izenburua bi hizkuntzetan jarriko da, lehenengo euskaraz eta jarraian gazteleraz. Hiru espazioetan berdin.



Gainontzeko eremuak beteko dira, edo gutxienez asteriskodunak, derrigorrezkoak baitira.

**Azpimarratuta dauden alorretan, honako hau jarri beharko da:**

Azalpena
Eginbeharreko lanak
Lan mota: **Indibiduala**
Hasiera data: **aurtengo ekainak 1**
Amaiera data: **hurrengo urteko irailak 30**
Orduak guztira: **300**
Proiektu lan hitzartua: **EZ**



Sakatu Gorde eta dagokion graduan ***eskaini.***

**(ADI! LEHEN HEZKUNTZAKO LANAK, BITAN ESKAINI BEHAR DIRA, LEHEN HEZKUNTZA (euskera) eta LEHEN HEZKUNTZA (hirueleduna)**




"***Gorde***" eta "***Proposamena amaitu***". Ez bada grabaketa bukatzen ez da "***balidatzeko zain***" jarriko.

Antzeko beste lan bat grabatzeko, "***<u>Proiektu/lan berri bat hau oinarri gisa erabilita</u>***" botoia sakatu. <u>Beharrezkoa da lan berriaren informazio guztia berrikustea,</u> eremu guztietako informazioa ez baita berdin mantentzen.




Grabaketa guztiak agertzen diren lehioan, grabatu berri dugun lana agertuko da eta ***egoera*** atalean ***"balidatzeko zain"*** agertuko da. Horrela bada, grabaketa ondo eginda dago.

